



MUSIKA

TOC lako ez dauz bi



TOC

XALBA RAMIREZ

Ekialdea aipatzen da, baina 2020. hamarkadako belaunaldi berria –deitu dezagun horrela– badator Mendebaldetik ere. Bilboko giro modernoaz gain, badira beste iturburu batzuk, akaso sukurtsal jitez, baina ahots propioz. Mungiak jada sortu du bere marka, eta horren erakusle da, besteak beste, TOC taldea.

Rock progresibo *oldie*-an –baina hamabi minutuko kantak egin beharrik gabe–, soinu propioa ari dira garatzen mungiarrek. Zikinkeria da euren grabaketan bereizgarrietako bat, etxean beren beregi bilatua. Eskertzen da, inperfekzioak arnasa ematen diolako taldeari.

Bat barik ez dauz bi EP-a kaleratu zuten Durangoko Azokaren bezperetan, eta lau kanta jasotzen ditu, mungiarren estiloa are gehiago finduz. Rockaren eta postpunkaren bueltan, Xabier Bilbaoren ahots urratu-xuxurlatu-oihukatu bereizgarriak eta Aitor Etxebarriaren gitarra konponketa jostariak –hemen minor har-

monikoa, hor disonantziak, inoiz ez bi bider gauza bera– ematen diote taldeari labeldun zigilua. TOC lako ez dauz bi.

Tira, *Nire Loa* kantak gogoratu dezake Gatiburen *Lorak eskaintzen* –Youtubeko komentarioetan haien ekoizleak esaten duen moduan–, baina harmoniarekin zer edo zer lotu badaiteke ere, ez da inolaz ere erreferentzia estetikoa. Gehiago dute Lil Mutikoren antza jarreran: “*Subo al escenario y me la saco, Alex Sardui, Alex Sardui*”.

Gogorrak eta eleganteak dira-eta TOCekoak, eta EP honetan are gehiago erakutsi dute. Iaz atera zen euskal kanta onenen artean jartzen dut nik *Gau eternal bat (M.S.)* amaierako arrangura indartsu horrekin: “Ilun egon arren / Euki eizu argi / Hor nauela beti”. Gezurrak esan behar dizkiogulako noizean behin gure buruari, aurre egiteko.

Mina dute letrek, eta batez ere, mina melodiek. Gaztea sarietan eta zerren-

BAT BARIK EZ DAUZ BI

TOC

AUTOEKOIZPENA, 2022

detan zorientasunari abesten zaizkien kantek babes handiagoa duten arren –edo mezenasgoa?–, une ilunak argitze-ko bestelako doinuak behar ditugulako. Pikutara doan gizartean, behetik gora eta minetik abesteak askoz gehiago indartzen gaitu.

Aurreko lanetan letrak ulertzen ez zirela eta, meme mordoia ikusi dut han hemenka –bide batez, ba al da gairik meme mordoia eman ez duenik?–. Baina batzuetan ez duzu ulertu behar sentitze-ko. Zeren TOC iman bat da. Eta ez dute managerrik zure jaietan eta ez dakit non inbutuaz sartzeko. Baina imanak harra-patzen bazaitu zureak egin du. Ezingo duzu askatu.

Erdi *moderneo*, erdi *makarreo*, TOC izan dadila eredu bat, aldatzen ari den hamarkada honen helduleku bat: “Haien estrukturan kanta bat / Daukadana da baina ez da asko / Ta zilarrezko bala bat daukat/ Inkisidore puta horiendako”. ●